

## DEBA'N

## «TENE» RI OMENALDI MEREZIA

Bizi diranak agertzen omen dira, 1964'an agertu zitzaigun «Tene» Ondarruko erriak Txomin Agirre'ri eskeiñiz egin zituan euskal idazle sariketetan. Gaiñera saritua izan zan nekazari gain.

Gure literaturaren zoritxarrerako, beste asko bezala, ekaitzak betik menperatu zizkiguten aien artean zala aste gengan, baiña ez ordea, 1936-an «Argia»ren Egutegia'k, bere argazkiz «euskal idazle yayoa» zala agertzen zuana, bere sasorik onenean genduan orduan gure idazlea, ta bere emaitzea ekaitz arek itzali zuan. Geroztik ez du izan bere txokotik irtezterik, baiña dizdira nabaitu genduan Txomin Agirre'ren omenezko egun aietan eta andik izan genduan alkar personalki ezagutzeko bidea.

Orain Debako erriak omenaldia eskeiñi dio. Ezta gaizki biziak omenaldia. Pozten gaitu erriak gure aintziñako idazlearekin gogoratzen dala jakiteak. Esker oneko erria orrela gogoratzen dana.

Nor da «Tene»? Galdetuko dute gazte askok, bere emaitzaren grutuak urri arkitzen bai dira geiena suak kizkali zualako, baiña salbatu ziran liburutegi zaarretan arkituko dira bere lanak. «Tene» izenordearen pean eman zituan bere lanik geienak Robustiana Mujika eta Egaña andereak, Deba'ko errian jaio zan 1888-ko maiatzaren 24-an. Larogei urte errez esatan da. Bere izena agertu zuan euskal literaturara «Euzkeltzale bazkuna»'k eratu zuan sariketa bat irabazi zuanean, Lan ura, 1923-an argitaratu zuan Zornotzan Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak deituko zan liburuan. Bertako lanetarik bat Watson Kirkconnell'ek itzuli zuan inglesera. *Udazken-ala* izenekoa, bere *European Elegies* bilduma poliglota argitaratzeko. Orain 1928'an.

Geroztik antzerki lanak ere gertatu zituan. 1934-an sarituak izan ziran *Goño-oiñaseak* eta *Gabon*, 1935 ean argitaratuko ziranak. Oiez gaiñera *Joan Jaxe* izeneko bakarrizketa bat ere idatzi zuan, Oñatin Mariaren Biltzar nagusian saritua izan zana.

Baiña, gero jakin degunez, zeoro ez zan aitu ber eiturria. Aspaldiko urtetan zerbait argitaratu omen du Debako jaien urteroko programan. Guxi batzuek irakurri al izan ditugu eta, gazte sasoi artako kemenek ez badute ere, politak dira bere

kontaeak, atsegingarriak edozein irakurleentzat.

Oraintxu jakin degunez, debar euskeltzaleak bultzaturik, gramatikaren bat gertatzen ari omen da. Deba bertako euskalki jatorraren estudio baterako bada, ondo deritxot, baiña euskeltzale batzueri beren ezjakintasunetik ataratzeko bada, ez. Leen ere gramatiketatik ondo gaudete testuko liburuetatik baiña. Gure literatura gramatiken sasi artean itotta daukagula esango nuke. Jaun bakoitzak bere metodologia egin digu, gutxi ke uskaldun errian oiñarritua. Ta nere utse. «Tene»'k bezala lu-

mea erabiltzen dakitenak obe dute literatura landu. Bere ipui ta konrak ez dira no'lnakkoak. Asko asko gure aurreri irakurgai bezala eskeintzekoak. Orregaitik, debaarrak egin lezakeanik omenik oberenetakoa da noski bere lanan bilduma bat argitaratzea, bere izena Euskal-errian zabaldu dedin eta bere kontaez gure aurren irudimena erne dedin. Ta aurrera ere, al duan neurrian, jarraitu bedi aintziñako bide orri. Gramatikak utzi beste ezer idazten ez dakitenentzat.

Zaude gurekin urte askoan.

J. S. M.



1.866

1.968

GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA  
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure «PRESTAMEN SERBITZARITZA»z (Servicio de Préstamos) balla zaitze

Zure baseria erosteko edo obetzeko Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko Baratzeko fruituak obetzeko Jakindean jarri zaitze Donostia'ko gure 12 ofizinetan eta Probintziako 63 sukursaletan

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIJOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón, Iruña, Bilbao, Gaztelz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alcantia, Murcia, Cartagena, Granada, Almería'ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA

Telnoak.: 25.457 eta 26.987



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLATEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

## EUSKAL LITERATURA SARIAK

Kooperatibismoa eta arrantzaleen eragintza. 20.000 pezetako saria

Gizarte-ekonomia gal au jarri dute Mondragoiko «Caja Laboral Popular»'ek eta Euskeltzaindiak, «Kooperatibismoa eta Arrantzaleen eragintza»'ri buruzko saiakerari onenarentzat 20.000 pezetako sari bakarra, deslertu utziko ez dana.

Arrantzaleen artean kooperatibismoa zelan eratu eta berak ekarri ditzakean obekuntza arrantzaleen gizartearentzat.

Agostuaren (dagonillaren) 15-era lanak Euskeltzaindiara bidalduak izan bear dira (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao). Erabakia Oñaitiko biltzar nagusian emango da.

Maiburukoak, Euskeltzaindiaren aldetik: Fernando Artola «Bordari», Eusebio Erkiaga eta Aita Imanol Berriatua; eta «Caja Laboral Popular»'en partetik: José Luis Iñarra, Antonio Esparza eta Felix Aldabaldetruko izango dira.

«Txomin Agirre» nobela saria.  
20.000 pezeta onenarentzat

Bi urtetik bein egiten dan literatura sariketa onetarako, Euskeltzaindiak, bere berrogetamar urte betetzea dala ta, «Bizkaiko Caja de Ahorros»'ak jarzen dituan 10.000 pezetari beste 10.000 jarzen dizkio. Beraz, aurtengo saria 20.000 pezetakoa izango da. Nobelaren luze-labur neurria libre uzten da. Lenago ihungo sariketetan presentatu gabeko lana izan bearko du.

Lanak Euskeltzaindiara (Ribera, 6 - Bilbao) bidaltzeko uztaillaren 20-an bukatzen da.

Euskeltzaindiak, sariketa onetarako, maiburu au izendatu du: Salvador Garmendia, Gabriel Aresti eta Ibon Sarasola.

50.000 PEZETA ONENARENTZAT

Aurrei euskera erakusteko erakusbiderik egokiena

Bilbo'ko «Euskerazaleak» elkartek, Bizkaia'ko Aurrezki Kutxa Probintzialaren babesean, sei urtetik amar urtera bitarteko aurrei euskera erakusteko metodorik oneneren lelaketa antolatuko du.

Erakusbide au, bere egitekoa obeto betetzeko, begietatik sartu bearko da, batez ere, marrezte askoran bitartez. Euskera Bizkaia'ko izelgiko ta idatzietan erabiltzen dana bear da.

Lenbiziko saria 50.000 pezetakoa ta bigarrena ta irugarrena 5.000 pezetakoa bakoitzarentzat izango dira.

Lelaketa au oso eroso datorela deritzagu, oso premi andia bai-zeogon onelako zerbaitena, euskeraren onerako. Gure txaloak bijozkio, beraz, «Euskerazaleak» elkarteari.

ASATE - OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2  
Urrutzikiña: 25700

DONOSTIA

JOSE ZINKUNEGI'REN  
OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA  
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK  
HERNANI, 4 — DONOSTIA

Beste edozein markakoa baiña  
Iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

inter  
radio tv

Saltzaillea:

CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS, S. A.

Ordaintzeko erreztaun aundiak